EKAIA (202x), artikulua prentsan/article in press
https://doi.org/10.1387/ekaia.xxxxxx
Behin-behineko bertsioa (euskara-orrazketaren faltan).

ekaia
ZIENTZIA eta TEKNOLOGIA ALDIZKARIA

ISSN: 0214-9001
e-ISSN: 2444-3255
©UPV/EHU Press

Izenburua euskaraz

(Izenburua ingelesez)

*Egile nagusiaren izen-abizenak**, *Bigarren egilearen izen-abizenak, Hirugarren egilearen izen-abizenak...*
Egile guztien afilizazioak (instituzioa, helbidea, herria/hiria, herrialdea)

LABURPENA: (250 hitz gehienez eta paragrafo batean). Laburpenak (bai ingelesez eta baita euskaraz) ezin du luzeran orrialde hauxe gainditu.
HITZ GAKOAK: Ekaia, LaTeX, euskara.

ABSTRACT: *(Maximum 250 words and one paragraph)*
KEYWORDS: Ekaia, LaTeX, Basque language.

***Harremanetan jartzeko/Corresponding author:** Harremanetarako autorearen izen-abizenak, afiliazioa, helbidea, herria/hiria, herrialdea.
https://orcid.org/xxxx-xxxxxxxx, Harremanetarako autorearen helbide elektronikoa

Nola aipatu/How to cite: (Adibidea:) 1. egilearen abizena, izena; 2. Egilearen abizena, izena...(202X). «Izenburua», Ekaia, DOI: https://doi.org/10.1387/ekaia.xxxxxx

Jasoa: xxxx, 202x; Onartua: xxxx, 202x
ISSN 0214-9001-eISSN 2444-3225 / ©2020 UPV/EHU

Obra *Creative Commons Atribución 4.0 Internacional*-en lizentziapean dago

1. Egileentzako gidalerro orokorrak

Jarraian aurkezten dira Ekaia Aldizkarian publikatzeko autoreek kontuan izan behar dituzten gidalerro orokorrak.

1. Ekaia aldizkarian Osasun Zientziak, Natur Zientziak, Zientzia Zehatzak eta Teknologiari buruzko idazlan originalak argitaratuko dira, goi-mailako dibulgazioaren eta ikerketaren esparruan.

2. Ale bakoitzean 20 artikulu argitaratuko dira gehienez eta urtean bi ale arrunt eta beste ale berezi bat (gehienez 10 artikulurekin) argitaratuko dira. Urte berean argitaratuko den alerako lanak urte horretako maiatzaren 31 baino lehen bidalitakoak izango dira; data horretatik kanpo bidalitako lanak hurrengo urteko aleko edizio-prozesuan sartuko dira.

3. Artikulu-egileek, dokumentuaren bertsio elektronikoa "doc" edo "pdf" artxibo-formatuan (gure kasuan, "doc" formatuarekin lan egitea erosoagoa zaigu) bidali dezakete OJS on-line sistemara (http://www.ehu.es/ekaia).

4. Hizkuntza matematikorako (formulak,...) LaTeX formatua ere onartuko da, dena den, aldi berean euskara zuzentzailearentzako "pdf" formatuan ere bidali behar da.

5. Testua euskara batuaz idatzita egongo da, hizkera argia eta zehatza erabiliz, eta literatura zientifikoaren usadio eta konbentzioak betez. Nomenklatura, laburdurak, ikurrak etab., nazioarteko kodeen arabera idatziko dira. XUXEN zuzentzaile elektronikoa pasatuta bidaltzea ere eskatzen da. Artikuluaren hasieran, izenburua, egileen izen-abizenak osorik (ezin da izenaren laburdura hizkia jarri), afiliazioak eta harremanetarako pertsonaren helbide elektronikoa jarriko dira. Artikuluaren testu orokorraren aurretik laburpena (abstract-a) eta hitz gakoak (*keywords*) jarri behar dira euskaraz eta ingelesez. Artikuluaren atalak era librean aukeratu daitezke. Dena den, ezinbestean lehenengo atala eta azkenengoa sarrera eta bibliografia izan beharko dira, hurrenez hurren. Testuaren formatuaren ezaugarriak ezagutzeko on-line sisteman jarri diren txantiloiak jarraitu: "doc" formatuarentzako eta LaTeX formatuarentzako txantiloiak dituzue eskuragarri. 10.000 eta 15.000 karaktere (tarterik gabe) bitarteko lana izan behar da. Testuan, irudi, argazki eta taulen kokapena adieraziko da. Egileak irudi, argazki eta taula bakoitza deskribatzen duen oina bidali beharko du eta irudia, argazkia edo taula norberak egina ez bada nondik jaso den ere adierazi beharko da. Noski, berriz argitaratzeko eskubideak dituen pertsona edo erakundearen baimenarekin. Egile eskubideak urratzen badira artikuluaren egilea izango da egindakoaren arduradun, Ekaiak ez du kasu horietan ardurarik hartuko. Aipamen bibliografikoak testuan azaltzen diren ordenan zenbatuko dira. Posible den kasuan erreferentzietan egileen izen eta abizenak osorik jartzea gomendatzen da. Lanaren amaieran, ondorengo eran idatziko dira:

   a) Liburuetarako: [Zenbakia]. Egilea(k). Urtea. Liburuaren izenburua kurtsibaz. Argitaletxea, Argitalpen-herria.

      Adibidez, [3] SCHMIDT K. 1975. *Respiration in air*. Cambridge University Press, London.

   b) Artikuluetarako: [Zenbakia]. Egilea(k). Urtea. «Artikuluaren izenburua». Aldizkariaren izena kurtsibaz, bolumena beltzez, orriak.

      Adibidez: [5] PUSKA M.J. eta NIEMINEN R.M. 1994. «Theory of positrons in solids and no solid surfaces». *Reviews of Modern Physics*, 66, 841-896.

   c) Sareko erreferentzien URLarekin batera web orrialdearen eguneratze-data adierazi beharko da.

6. Bidalitako artikulua ez da beste inon argitaratua izan ezta argitaratua izan dadin beste aldizkari batera bidalia ere.

7. Egileek gaian adituak diren eta euskaraz dakiten bi ebaluatzaile zientifiko proposatu beharko dituzte.

8. Erredakzio-batzordeko zuzendariak arloko koordinatzaileari bidaliko dio artikulua eta arloko koordinatzaileak gaian aditua den ebaluatzaile bati. Ebaluatzailearen iruzkinak eta arloko koordinatzailearen erabakia (argitaratzeko prest, zuzenketa txikiak, zuzenketa nagusiak) egileari itzuliko zaizkio. Egileak zuzenketak egin eta gero, artikuluaren argitalpenaz azken erabakia erredakzio-batzordeak izango du.

9. Ebaluazio zientifikoa gainditu duten artikulu guztiak euskara zuzentzailearen eskuetatik pasatuko dira. Euskara zuzentzaileak ezinbestez zuzendu behar dena gorriz eta iradokizunak berdez adieraziko ditu testuan bertan. Egilearen lehenengo zuzenketaren ostean euskara zuzentzaileak erabakiko du bigarren zuzenketa bat beharrezkoa den edo ez.

10. Azkenik, Ekaia aldizkariak eta Kultura Zientifikoko Katedrak adostutako elkarlana bultzatzeko, egileek artikuluaren 400-500 hitzetako laburpen dibulgatzailea egiteko konpromisoa hartuko dute, Zientzia Kaiera hedabide digitalean argitaratzeko.

Bibliografia

[1] IBARRA E. eta ETXEBARRIA J.R. 2014. «LaTeX: euskarazko dokumentu zientifiko-teknikoen ediziorako baliabideak». *Ekaia*, 27, 329-343.